Bermeotarron izana izenetan, izen hori hartu du Bermeon toponimiari buruz egin den lanak eta izen egokia dela esan dezaket, leku izenek asko esaten dutelako lurralde jakin batean bizi den eta bizi izan den jende-komunitateari buruz, ikuspegi eta diziplina ugariren ikuspuntutik begiratuta ere.

Bermeon egin dugun lanaren zertzelada batzuk eta batez ere, erabilgarri izan daitezkeen ondorioak azaldu ziren jardunaldian, elkarrengandik ikasten dugulako, beraz, ondo egindakoak eta zailtasunak azaldu ziren.

1999. urtean hasi ginen, lanean. Irune Allika filologoak eta Bitor Uriarte Historia irakasleak proposamena aurkeztu zioten Udalari Bermeoko Toponimia ikertzeko. Udalaren Kultura Sailak beka eman zien hiru urtetan ikerketa egin zezaten.

Urte horretan Euskara Saila egun ezagutzen dugun eran egituratzen hasita zegoen eta hasieratik ikusi genuen gure arloko lana zela, Euskaltzaindiarekin batera jardun beharra zegoela eta kontua ez zela beka eman eta handik hiru urtera emaitza jasotzea. Horregatik, Euskara Sailak bere egin zuen egitasmoa eta Euskaltzaindiak ordezkaria izendatu zuen jarraipen eta aholkularitza lanak egiteko.

Ikerleek hiru norabidetan abiatu zuten euren lana, batetik, lekukotasun idatzien bila artxiboak arakatu zituzten, bibliografiaren bidez euren burua jantzi zuten eta berri- emaile ugarirekin, lekuz leku ibili ziren, lekukotasun bizien bila.

Ikerketa-lan sakon honen abiapuntua ezagutzen genuen baina ez non amaituko zen, are gehiago, ikerketa egiten ari zirenak gogotsu eta indartsu ikustean, aztarna bat bestearen atzetik datorrenean, hari bat bestearekin josten hasten denean.

2006an, ikerlana amaituta, liburua prestatzen hasi ginen eta 2007an argitaratu zen. Ikerketa lana osorik argitaratzea erabaki zen, batetik, ikerketa bere horretan kaleratzeak osotasuna ematen ziolako lanari, eta bestetik, etorkizunean egin daitezkeen beste ikerketa batzuetarako baliagarri izan zitekeelako. Gero etorriko ziren beste aplikazio didaktikoagoak. Liburuarekin batera, udalaren web gune ofizialean sareratu zen ikerlana eta horren berri emateko, komunikazio plana osatu genuen.
Bost aurkezpen jendetsu egin genituen, berri-emaileak batu genituen ekitaldi xume batean, euren ekarpena eskertzeko eta eman zuten informazioarekin egindakoa erakusteko. Horrez gain, eskualdeko hedabideetan oihartzuna lortu genuen.

2008an jarraipena eman genion lanari eta hasieratik kezka iturri izan den erregistro idatziaren eta ahozkoaren arteko aldeari erantzuteko asmoz, web gunean ahots artxiboak txertatu ziren, batetik, idatzirako proposamena jasota zegoen, eta bestetik, kontuan izanda euskara bizirik dagoela Bermeon eta herritarrek leku-izenak erabiltzen dituztela, garrantzia eman zitzaion herritarrek esaten duten eran esaten jarraitzeari. Euskara erabiltzen duenak sarri bere hizkera gutxiesten du erregistro idatziaren aurrean, ez dio baliorik aitortzen bere berba egiteko moduari eta hori, hain zuzen, ekidin nahi genuen. Beraz, lan bikoitza dugu, batetik, leku-izenak nola idatzi behar ditugun ikastea eta ahoz nola erabiltzen jarraitu behar dugun bereiztea.

Leku-izenen erabilera zabaltzeko irakaskuntza bide interesgarria da. Hori dela eta, oinarrizko ariketa sorta prestatzen ari dira ikerleak eta irakasleen ekarpenekin aberastuko dira. Beste aplikazio bat lantzen ari gara, eskola agenda, helburu bikoitzarekin, leku izenak zabaltzea eta gurasoen eta ikastetxearen arteko harremanetan euskara erabiltzeko beste tresna bat izatea. Eta Herri Ikastetxeak argitaratzen duten aldizkarian atal finkoa eskaintzen diote Bermeoko toponimiari.

Aurtengo beste lan bat auzo izenak ofizialtzea izango da eta datozen urteetan badugu zeregina, batetik, kale izenak ofizialdu nahi dira, horren ondorioz komunikazio ekintzak egingo ditugu, kale seinaleak berrituko dira eta mapa toponimikoa osotu nahi genuke.

Kale izendegia egungo irizpideekin bat etortzeko gaurkotu beharra daukagu eta horretarako lantalde bat antolatu nahi dugu, proposamena aztertzeko eta Udalak erabakia har dezan laguntzeko, prozesu parte-hartzailea abiatu nahi da.

Udalak gogoz hartu zuen Toponimiaren lana eta Euskara Sailak bideratu dituen lanez gain, beste sail batzuek ere lagundu dute gizarteratzen. Horrela, bada, urtean behin antolatzen diren *Bermistorian* jardunaldietan hainbat ekintza antolatu dituzte, bai udal sailek (Kultura, Turismoa), baita udalerriko elkarte batzuek ere, hala nola, alde zaharreko auzo elkarteak, mendi taldeak eta erraldoien konpartsak.

Beste eragile batzuk egindakoak:

- *Berbalagun* egitasmoan hiruhilero antolatzen den lehiaketan beti dago galderaren bat edo beste leku izenekin zerikusia duena.

- Euskara Elkarteak mahai jokoa prestatu zuen, eta besteak beste, lekuizenen inguruko galderak sartu zituzten. Eta jaietan osatzen den liburuan, artikuluak idatzi dituzte ikerleek.

- Mendi taldeak antolatzen duen elizen eta ermiten ibilaldirako aurten liburuxka argitaratu da

- Auzoko leku izenekin liburuxka osatuko dute auzo bateko bizilagunek

Ikusten denez, Udalak abiatu duen lanak oihartzun zabala izan du udalerrian, hainbat eragilek bere egin dute eta erabilgarritasuna topa diote toponimoen bilketari.

Egin dugun bide honetan zailtasunak izan dira, ezin beste era batera izan, batzuk erraz konpondu ditugu eta beste batzuk, kostata edo oraindik konpondu barik ditugu:

- Beka emateko baldintzak. Zenbat eta zehaztuago, hainbat eta hobe. Gure kasuan, ez zen horrela izan eta hainbat arazo ekarri dizkigu.

- Hasieratik prozesua osorik ez aurreikustea. Euskara Saila orain hamar urte sortze prozesuan zegoen, ez genituen gaur egungo, baliabideak eta egoera ez zeukan zerikusirik egungoarekin. Argi geneukan bilketa lana ez zela nahikoa, euskararen normalizazioan beste aurrera pausu bat emateko balio behar zigula, baina sakontasun osoa ikerketak aurrera egin ahala ikusten joan izan gara. Tartean, astia izan dugu hausnarketarako eta egitasmoa moldatzen joateko. Gure esperientzia ikusita, osotasunaren ikuspegia hasieratik izatea garrantzitsua dela uste dut. Eta zailtasuna izanda ere, esan dezaket aldi berean aukera izan dela aurrera egiteko.

- Ikerleen eta Euskaltzaindiaren arteko desadostasuna. Horrek une mingotsak ekarri dizkigu, kopuruaren aldetik toponimo gutxi badira ere, garrantzitsuak direlako desadostasun-puntuak. Adostasunerako bidea ez egiteak ondorioak izan ditu, hain zuzen, Udalak erabaki baitzuen ikerketa zegoen moduan argitaratzea eta horrek ataka zail batean jarri gaitu, batez ere, Euskara Saileko teknikariok, izan ere, denon erdian egotea egokitu zaigu: korporazioaren, ikerleen eta Euskaltzaindiaren erdian. Eta ez da batere erosoa.

- Hasieratik mahairatu zen idatzizko eta ahozko erregistroen artean dagoen aldea eta horri konponbidea eman diogu ahots artxiboak sarean jarrita.

Hobetzekoak, beraz, bide horretatik doaz, gaur berriro hasi beharko bagenu lan hau planifikatzen, zalantza barik, beka emateko baldintzak ondo zehaztuko

nituzke, teknikarion prestakuntza hobetzeko eta prozesua osorik aurreikusteko ahalegina egingo nuke eta erakundeen arteko lankidetza areagotzea eskatuko nuke.

Ondorio gisa esan daiteke, herritarren aldetik erantzun ezin hobea izan dugula, bai bilketa lana egin zen bitartean, bai gizarteratzeko ekintzak egin direnean, hainbat eragilek bere egin dutelako eta arloan arloko erabilgarritasuna topatu diotelako. Udalak ere bere konpromisoa hartu du, bidea jarri du lan honek guztiak argia ikus dezan, baliabideez hornitu du egitasmoa.

Azkenik esan bidelagun onak izan ditugula hamar urte hauetan, Irune Allika eta Bitor Uriarte ikerleak, euren aholkulari eta lanaren jarraipena egin duen Fernando Aranbarri Euskaltzaindiak izendatutako aditua, lan teknikoa egiten lagundu digun Dijitalidade enpresa, jarraipen batzordean izan diren udal arduradunak eta adituak, eta nola ez, gaurko jardunaldia antolatu duen Euskaltzaindia. Bidelagun horiekin guztiekin, argi ilun guztiekin, bidea eginez ikasi dugula esan dezaket.

Maite Alvarez de Zarate
Bermeoko Udaleko Euskara teknikari eta Zerbitzu-burua